

1972-73?

(9)

[Lafitten art.
1972-Avr.]

[19] 1973?



Komunitatearen ekintzak: hots, guraso, ikasle, erakasle..... gantien ekintzak behar du eskola eta biziaren arteko hesi-muga hautsi.

Halatan, bada, honek berekin darama hezketaren helburua batetaratzera lana ez-baina, desentralizatzea dela, eta nortasunaren hazkuntzak ikaskotak hainbat balio duela gutienez haurren-tzet, eta oro har, hezketaren eraberritzeak gizartearen beraren demokraziaren bidetik barna behar duela ibili.

"El correo de la Unesco" .-

T. Lemaresquier-ek

ALDIZKARIAREN MOLDE BERRIAK

OHARRA: Lehendabiziko orrialdeetan dugu lan-txo hau ematen, guztiaren gainetik, irakasleek gertatuaaren berri jakin dezaten, eta baita ere, hainbat denboraren ondotik, surrerat bidean nondik abiatu garen adierazteko.

Barka bakarren bat orain baino lehen gertatu denaz ez-jakin baldin bazen.

PLANGINTZA.

Ikasaro honen hastetik, funtsez eta formaz, gure aldizkaria ukitu eta eraberritzen ari ginen. Hala, Osatu zen horretaz arduratuko zirenen taldea, banatu ziren eginkizunak:

- Idazketa
- Administrazio
- Harpidedunak

eca ondorioz, gogotik abiatzeko asmoz gérnbiltzen bide berriak urratu nahirik. Aldizkariaren molde-ari buruz ere plangintza hau eman genuen, hots, sail hauk eramanen zituen surrerat begiras:

- a) Estudio sakonketak
- b) Esperientzien saila
- c) Informazio eta kritika (Herriko gertakari edo gatazkak beziki)
- d) Liburu saila
- e) Albiristea

Horik oro, ordea,

GERTATU DENA.-

Badakizue Lazkaon ateratzen zela orain arte, salbu lehendabiziko bospasei zenbaki, eta aski xukun moldaturik atera ere gainera.

Johan den azaroko egun nabar batetan, hainbat hilabetako zorra genukala, eta hora ordaindu gabe ez zutela gehiagorik argitaratiko esan zeukan, bapatean lepotik helduaz. Egia, gurea zen era. Diruzainak lanik asko ukan zuen beste arazo batzuk direla medio, eta besteok ez ginen sobera diruzaren kobraketaz arduratu. Dena den, galda bezain laster ordaindu genuen eta kitatu zorra.

Ondoko egun batetan, eta honek are gehiago harritu gintuen: haien gana arduradun bezala azaltzen zena ez-baina, besteren bat arduradun izateko kondizioa ezarri zeukan. Kunplitu zen hori ere.

Azkenik, berak ez zirela lan horretarako gehiago prestatzen esanaz amaitu zuten gurekikoa. Arduradun zenbait erabaki horren arrazoinak eskatzea A. Abadeareñi gana johan ginelarik, komunitatean erabakien arrazoinik ez zutela ematen esan zeukan.

ATERABIDERIK OTE?

Aski poliki eskua harturik ginen lehenengo lekuau, eta orain zer egin? nondik jo? Inprintaz ez zen posible, eta multikopia soil batetan ematea ere, bidean atzeraka abiatzeaz aparte, ez zen sobera erraza. Hau duk komedia!

Gauzak horrela, horra non "Anaitasuna" orrialde bi eskaintzen daukun guk hornitu nahi izanez gero. Hasteko, ez zen zapuzteko eskaintza: 7 mila harpidedun, hamabost oro

Bestalde, Gordailu abiaturik zen orain baino lehen informazio alderdia osatzen. Nola batak hala besteak eskuak bete lan emanen zeukan, baldin eta taxuz hornitzekotan behintzat.

Alabaina, ezin gehiago hasgune bat genuen. Esin-etsi hau bera nabari zen irakasle edonoren iritzian. Anaitasunak ez zezakeen gure aldizkaria-ren eginkizun eta xedeak bete. Ez bait gira inoia ere gauza bera. Hiltzera utzi behar cte zen, bada, aldizkaria? Anaitasuna eta aldizkaria, biak batera eraman ahal izateko ere gauza izan behar zen. Aldizkariaren esperientzia apur bat bagenuen, eta zinez, kazeta batetarako lumak zorroztea amesgarri zitzaigun.

Nola konpondu arazoa?

POSIBILITATE BERRIAK. -

Biak interesgarri memnto honstan; bata, zer-bait frogaturik, eta bestea ere frogatzeko gogoz. Bainaz arrazóimenak agindu behar zuen batibat, eta ez bihotzak. Ikus dezagun gure argudiatzeko modua.

-Guztiaren gainetik nabari zena: aldizkaria argitaratzeko oztopoak, ez da dudarik, ez zituen esperientzien sailak sortzen, hots, matematikaren edo irakurketaren hastapenak nola egin ikastolan, edo testo librea nola erabili edo fitxak nola landu, etab. Gisa honetako esperientzien berri aldizkarian emateak ez dakar eragozpenik. Ez estudio-sa-konketa sailak, ez-eta liburuuenak ere.

Orduan, zer da bazterretan ezin-kabitu hori sortzen duena? Esan dezagun laburkile informazio saila. Bai, herrietan gertatu chi direnen informazio, egoera-aztertze eta kritikatzea hain xuxen. Hau horrela izanik, gure zahalmen apalak ikusirik eta bestalde informazioaren arazoe, hona nola planteatu dugun guzti honen etorkizuna.

-ANAITASUNA:

=====

Hamabost oroko kazeta, eta herriari zuxen-durik denez, berozan xede-helburuetatik barna jokatu behar da. Beraz, sakonketa -esperientzien nahiz informazioaren berri laburki eta bixiki behar da eman, baina dena delarik ere tresna interes-garritzat jotzen da "Anaitasuna", herria ikastola-ri buruzko zernahi arazo eta ikuspegiz jakinaren gain egon dadin. Eta horrela, bulgarizazio-informazio mailan edo moldeetan taxuturik izanen litzateke ikastolaz hornituriko kazeta honen orrialde bikoitz hori.

-ALDIZKARIA:

=====

Lehengo eite edo moldaketa bera eramanen luke, salbu informazioa. Aipatuko dugu berehalaxe zer-nola eta nondik bidezatuko den informazio hitzez bereziki adierazi nahi duguna. Ordainez, liburu-en saila ezarriko diogu eta gisa horretan moldatuko aldizkaria. Halere, ez daiteke hilabete oro edo urtean hamaika zenbaki eman orain arte bezala. Ikusiko dugu zer indar, adore edo eragin ukantzen genezakeen denborarekin, baina oraingoz urtean lau edo gehienik sei zenbaki osatzen aski lan badukegula uste dugu. Geroak esango.

-GORDAILU:

=====

Irakasleen Elkarteak, eta bereziki, liberratuak arduratuko lirateke, esan dezagun, informazioaz. Informazioa aldizkaritik ateratzen badugu, ez du esan nahi, arrazoina aipatu dugu gorago, hots, eragozpenik handiena honek sortzen bait du aldizkariaren bizitzarentzat, beharreko ikusten ez dugunik. Beti da informazioa beharreko, eta are gehiago, ikastolari buruz hainbat tirabira eta nahasketa den denborotan. Zer eztabaidea eta gatazka zenbait alditan informazio ezaren gatik bakarrik.

Eta informazioa aipatzerrn, gertakarien kronologiazko xehetasunik berezienak, shal den objetibokien emaniko kritika, arrazoinbide eta ondorien erakustea esan nahi da, horra.

Len hau Gordailu-k burutuko luke, eta bere garaian, multikopiaz moldaturik, aparteko zenbait orrialdetan informazio delakoaren zerbitzua irakasle jendeari eskainiko.

Halatan bada, aurreak erakusten bait du atzea nola dantzatu, hots, kaskarrekoak hartuaz ikasten alegia, eta guk ere bai. Anaitasuna dela medio herriari emanen dioğu ikastolaz intsesegarrien denaren berri. Aldizkariaren bitartez landuko ditugu aipaturiko beste sailak, helburu bezala irakasleok gauza espezializatu bat ukal dezagun gure lanerako. Eta azkenik, Gordailu dela medio jorratuko genuke informazio jator bat shalik osokien emana.

ALDIZKARIAREN ARDURADUNAK. -

ଶ୍ରୀମତୀ ପାତ୍ନୀ କଣ୍ଠାରୀ ଏବଂ ଶ୍ରୀ କଣ୍ଠାରୀ ମହାରାଜଙ୍କୁ ଆଶ୍ରମରେ ଦେଖିଲାମାରୁ

~~Unesco-ren Zekaldeko eta~~ Freiren kontzentziatza

Freire-n pedagogia ulertzeko, kontesto honetan situatu behar da. Hain hedaturik den teknikakeriari erantzun bat eman nahirik dator. Sozial aldakuntza baten eragile izan nahi duelako, krisia hau nondik datorren, zertan funsatzen den, aztertu egin behar dela usten du. Erro-errotik usteldurik dagoen giza-eraketa hau, zanpaketaren gainean eraikia dago eta gizonak gizonea menpera dezan prestatua. Hau da beraz, hezketaren gaia: urte luzez zanpaturik bizi izan den gizonea eta oraino ere zanpaturik bizi den gizonea.

Gisa zenez, gizon zanpatu honek, zanpatuan pentsaera beregana du. Eta honelako pentsaera jaso duen gizon honengan xertatu hahi luke Freirek bere pedagogia berria. Eta pedagogiaren molde honek egiazko desarroiloa kausatuko du, bide batez gizon honentzat askatasunera daraman bidea, bilakatzen bada.

HONETARA EMAN DAITEKE BERE PENTSAERAREN
PUNDU NAGUSIA:

Egun hegoamerikatan dugun problemarik borritzena eta sakonena, gizonak gizonea zanpatzea geratzen da. Zanpaketa honek sortu du giza mota berezi hau. Eta honela seilaturik dagoen gizonea, hezketaren molde egoki batez, askatasunera bultzatu nahi da.

67

Hezketaren zereginean sartu nahi dugunoi bi posibilitate aurkezten zaizkigu:

- Oraingo egoerari eutsiko dion hezketaren moldea onartu eta berriro ere gizonaren zanpaketa kausatzen duen hezketaren moldeaz baliatu.
- Egoera honen gakoa aurkitzen ahalegindu eta egoeraren beraren aldakuntzara eranen gaituen hezketaren planteaketa egiten hasi. Inguru honetan murgildurik bizi den gizonari, bere egoera honen kontzientzia argitsu bat ukar dezana lagundi. Artarako tresna egokiak eskaini.

Gauza batez arras konmentziturik dago Freire, hots, hezketa ez daitekeela neutroa izan. Horatz, hautatu beharrean gaude eta Freire-k bere hautapena egina du. Kontzientziatzaaren aldeko hautapena edo eta berak dionez, askatasunerako pedagogiaren alde dago.

Alabaina eta hezketa-molde honen berezitasuna zertan datzan esan baino lehen, on izanen da, hezketa molde honekin uztartzen ez diran bi ekintza mota aipatzea:

- Hezketa molde honen helburua ez da "masak buru-berotzea eta masa hauk bizi duten egoera kanpotik zirikatuz, masa hauen sentimenduak biztea.
- Ez eta geroko ekintza batetarako lagunarrri lirateken ideologiko oinarri batzuk erein eta zabalduz johatea.

Kasu bi hauetan, pedagogia ez litzake askatasunerako tresna izanen, ez lioke jendeari bere burua askatzeko eta bere hitza gteratzeko laguntza handirik emanen.

Freire-k eskaini nahi daukun pedagogiaren ikuspegia dialektikoa dela esan ohi da. Alegia, gizonezko eta mundua aurrez aurre dauden bi polo bezala ematen ditu. Bieti elkarrekin harremanetan daude, elkarren eragile eta elkarren oztopo gertatzen direla. Osatzeko biak eta elkarren arrimuan soil soilik osatzeko moduan biak. Elkar oposaturik aurkitzen direnez, gizonak aldatzen eta beraganatzen duen heinean, bere buruaren jabe izatera heltzen da, bere nortasuna osatze aldera abiatzen da.

Freire-n hezketa-mota prozesoa honen ikuspegi kritikoa bezala proposatzen da. Prozesoa hau dela, gizonak historiaren zehar daramana, Freirek argi ipini nahi luke. Gizonak prozesoa honen harriari hel dezaien eta hari hau tiratuz bere historiaren jabe izate alderat itzul dadin nahi luke. Orduan bere nostasunaren jabe izate aldera abiatzen da.

Bide hau luzea da eta etapa ezberdinak iragan behar ditu. Pauso bakoitzak hurrengoa prestatzen du. Gizon askorentzat, gizon gehienontzat, balio duen gizartearen eraketa, mitoetan pinarritzen du. Gizonok eraketaren azalpen hau sinetsi egin dugu eta sinetsiz guregana dugu. Orain mitoetan eta magia-ren eremutik irten egin behar dugu, hots, azalpen arrazoizkoen bila jo behar dugu.


Gizon zanpatuak ez du bere esku historiarenen ardatza. Berak historia baino, historiak bera gidatzen duela esan daiteke. Bera historiaren era-gile baino, historia gizonaren gidatzaile itsua areago gertatzen da. Historiak gizona murgildurik daduka eta abiada itsu baten gurpilsan sarturik.

Beraz, Freire-k dionez, murgildurik bizi den jende honek berak eskaintzen dauku hezketa egi-azko baten problematika eta nondik norakoa. Jende honengana abiatzen da Freire, jende honek magiaz kutsaturik duen ikuspegia barne barnetik ulertu

nahi du, gero ikuspegi hau bera bere mito guztieta-tik garbitzeko. Azkenik hau bere zabor guztiak kendurik, herriari berari itzul dezaion.

Pedagogiaren ekintzak, gizonak bere bu-rua ezagu dezan, ahalegindu behar du. Nor den no-la bere nortasuna osa dezaken eta nola kanpotik manaiatzen duten ohar dadin.

Arestian, hezketa neutrorik ez dala esan dugu. Baino neutroa ez izateak arrisku bat du, hots, lehen nagusien aginduen soinura dantzatzen zen gizona orain kanpotik entzun dituen lau ideien soi-nura dantzatzea. Eta hemen datza pedagogia ororen gakoa. Pedagogia agiazko batek ez dezake gizona, beste baten ordez erabakiak har-trera bultza. Nor bera erabakien jabe izatera eragin behar du.



Bistan dago, Freire-k proposatzen duen hezketa-moldeak, lehenago edo beranduago agintari-tza mota baten kritikara erama-nen duela. Hain zuzen ere, interes berezi batzuen defentsan era-kirik den egungo gizartearen era-keta, aginte hutsaz baliatu beharko du, baldin eraketa honek iraun dezan nahi badu. Gizona bere zanpaketa, chartzen has da-dinetik eta gizartearen eraketaren gakoa ohar de-zanetik, zerbaiten arrastoa hartu du. Orduan agin-teak ekilibrioa gal dadin arriskua baliatus, askatasuna mugatzeko aitzekia izanen du.

Azkenik, hezketaren molde honek ez luke askatasunari buruzko ale hutsa izan nahi. Ez luke ez eta opzio iraultzailerik egokienak zeintzuk di-ren eta nola hedatu behar diren irakatsi nahi. Egi-azko kontzientziaren iratzartzea eta zinezko ekin-tza baten abisaburu baizik ez du izan nahi.

Hau erdiesteko, azterketa iraunkor bat ekin-tzarako bidea bezala proposatzen du. Azterketal ekin-tzarako bidea egiten duela eta ondoko ekintzak azterketaren jarraipena seguratzen duela. Beraz, hesketa askaitzaile honek ez du bere zintzotasunaren eta seriotasunaren frogatzat bere eguneroko ekintza baino izanen.

KONTZIENTZIATZEAREN DESMITIFIKATZEA. -

Praktikan, ordea, besterik gertatzen da, dela-ko kontzientziatze honekin. Eta honek garrantzi handia du Freire-n hezketaren moldeez hainbat ele entzuten dugun egunotan. Izañ ere, metodologia berri baten antzera har bait daiteke eta oso azaleko aplikazio huts bat egiteaz konforma gaitezke. Orduan indar magiko baten antzera erabiltzen dugu.

Azkenik, esan beharrekoak esan eta hitz hustietan erortzen gara. Hezketa molde hau, nahiz ezker-tiarrek erabilia izan, beronek erdietsi nahi dituen helburuen aurka, erabiltzen da, hots, jendea manaitzko berriz ere.

Hortaz, lehen, teknizismoaren alde ahulak iku-si ditugun bezala, orain, hezketa molde honen erabilerak makalak ikusiko ditugu.

Ekintza pedagogiko orok badu bere alderdi dirigista eta ez lizateke bidezko izanen Freire-n hezketaren moldeak arrisku hau saihets dezakenik, us-te izatea. Pedagogia oro, hein batetan ideia nahiz dato batzuk onartzetik sibilitzen da eta ontzat emaniko presu posamen hauk inposatu asmoz aritzen da. Agirian, hau egin ez dadin kasuan ere, ustekabeen egin daiteke. Norbaitek pentsa lezake, Freire-n hezketa-moldearen kasuan ez dela honelakorik gertatzen, zeren-eta datoak ingurutik beretik jasotzen bait di-ra eta denek elkar-lanean jaso beharko lituzkete.

Dena den, hemen ere pedagogiko ekintza denetan agiri diren bi muturrak baditugu: Emailearen eta jasotzailearena dei ditzakegu. Lehenetik bigarrenera iragan behar du korronteak eta bistaz da mailaketa bat, hierarkia bat eginaz. Hortik hurrengo pauso bat ematea, batek eman eta besteak hartu egin behar duela pentsatzea, aski erraza da. Freirek arrisku hau haintzat ematen duelako, arriskutzat ematen duelako, argi eta garbi esaten du, bi muturrokin elkarren eragile izan behar dutela, hots, hezketan parte hartzen duten bi aldeak elkarren hezle izan behar dutela. Eta egia da bide honetatik arriskua gaindi ahal dela.

Baina nork esanen dauku, ekintzaren eragile bezala agertzen denak, ekintza bere gogara zuzenduko ez duenik? Erantzunetan ez-ezik galdeetan ere kondizionatzen bait da elkarritzeta baten nondik norakoa. Jasotzen den erantzuna oginiko galdearen gisara moldatzen da. Eta galde sail baten azpian nobaiteko ikuspegi berezi bat izkutatzen da.


Eta haste-hasteko baldintza da, ikasleak irakaslearen irakasprena gisa honetara edo hartara ontzat eman dezan, aginte bat onar dezan. Hezle hauk, koordinatzaile nahiz bestetara ditzen direla ere, beren ikuspegi eta guzti ari dira eta hau inposatzeko tentaldian eror daitezke,

Hemendik atera dezakegun ordorioetako bat hau izanen da: Kontzientziatzauren maila sakonago nahiz arinago izanen da irakasleak berak erdietsi duen askatasunaren graduaren arabera. Hemen dago arazo honen gakoa, hots pedagogia askatzaileaz hitz ederrik egin bait daiteke egiasko askatasunaren egarriren izpirik ere sumatu gabe. Eta askatasunaren egarri sutsu batetik abiatu ezik-ezin genezake nehorrengan askatasunaren irrika bizirik sor.

Egoeraz kontzientzia argitsu bat izateaz harat ere, horra zein den pedagogia askaitzailearen nahi-ta-ezko baldintza. Alfabetatzaileak askatasunaren egarri sentitu behar ditu besteei das-

taerazteko.

Honela izanik Freire-n pedagogia utopia aldera dagoela esan daiteke. Errealitatetik abiatu eta utopiara bidea egiten saiatu. Bi punta hauen artean mugitzea oso zail geratzen da dudarik ez. Baina ez ote da pedagogiaren eginkizuna bi punta hauen arteko joan etorria etengabean egiten enseiatzea? Freire-n metodoa aplikatu nahi izanduen zenbait irakasle lehen esaten genduen askatasunaren mailara ez heldua izatekoa eskuarki gertatzen den gauza izan daiteke, baina errelista izatekoan pedagogiaren ekin-tza orok dituen mugaz jabeturik egon behar dugu.



Metodo honen erabiltzea benetan zail gertatzen da, animadore soil izazeaz gain egiazko militante izatea eskatzen baita, bestea errespetatzeko gaitasuna behar da, azkenik amairik gabeko elkarritzetan aditzeko kemena izan behar da. Eta egia da, egunoroko esperientziak frogatua da, animadore batzuk ez direla haserako paterinalismo motel hartzik harat jotzeko gai izaten.

Delako animadoreak saihestu behar duen beste arrisku bat hau da: bere burua prediku iraultzaileez beterik edukitzea eta jendea konbertitzen ahalegintzea, hots bere alderat ekartzen. Joera hau demagogiaren ertzean edo egin ohi dena lehen esaniko joera teknokratikoa bezain gaitza dela esatea ekuar-ki entzuten den gauza da.

Dena den, bi joera hauk nekez zeharkatzen

diren froga eguneroako esperientzian oinarriturik eman dezakegu. Bakoitzak baditugu gure begien aurrean bide batetik ala bestetik ari diren predikatzaile ezagunak. Eta honek berak adierazten du, lehen aipatu ditugun hezle sutsuak moldatzen joateko beharra eta premia.

Gainera metodo honen erabilera, erabili duten taldeak zuten ideologiaren arabera ezberdina izan da. Erabili duten taldeak ezberdinak zirenez ezberdinki ulertu eta erabili dute metodo hau.

Kristau talde batzuk egin duten erabilera esa-te baterako MISTICISMOTIK hurbil dela esan daiteke. Freire-n idatzi gehienetan, klaseen burrukarra erreferentziari aulkitzten ez denez gero, uste izan du zenbait kristau militantek ere, elkarren aurkari diren alderdi biak egiazko burruka latzuk gabe ere elkarrengana daitezkelo. Aski litzake erre-alitateaz gero eta ikuspegi kritikoago bat sortzea, kontraesan hau amaitzeko burruka latzetara gabe.



Baina Freire bera altxa da interpretazio faltsu honen aurka eta han hemenka egiten ari diren saioen orientabide magikoa salatu du gogorki. Kontzientziatze hau politiko ekintza baten ordain ez denez gero haintzat erabiltzea ez da bidezko. Ez de-zake inolaz ere ekintza politiko baten eginkizunik bete.

Beste militante batzuk markistak bereziki kontzientziatze hau politiko baten lehen menmentoztat ontzat emana dute.

Iraultzaren eremuan sartu aurretik hartu beharreko bataioa edo lizateke. Alfabetatze honan helburuetako bat leader batzun sortzea izanen da, lider hauk kultura politiko eta iraultzaile baitez ornitzeko tresna egokia da hau.

Lehen-joera, pedagogiaren sagaratze alderat makurtzen den erara, bigarrena politikaren sagaratzerat lerratzen da. Freire-n hezketa molde dialektikoaren interpretazio biak antzu geratzen dira eta lehen aipaturiko arriskutan behaztopa egiten dute.

Ekintza kulturalaren gisara proposatzen den metodologia aurrez erabakiriko nahiz eginiko politiko hautamen batzuk erdiesteko proposatzen da eta egiazko herriaren eta jende xehearen historia maiz aski at geratzen dela.

Honen seinale metodo hau baliatzeko hautatu diren gizartearen inguruak izan daitezke. Eskuarki hautatu ohi diren giza mailak behe proletario-neak izan dira. Eta ekintza politikoa ez egiteko aitzekitzat har daitezke.

Politiko ekintza bat kontzientziatze hutsa bezala ulertzten denean, ez da behar hainbat garbi ikusten politiko ekintza emankor batek organizazio zehatz bat eskatzen duela, eta politikarako prestaturik den jende horri ekintza hori posible eginen duten bide batzuk behar dituela ez da garbiro ikusten.

Politika hitz husteletatik harat ekin-tzetara heltzen ez denean, sor daitezke gogozko iraultzaile purrukatuak baina inguruan eragin bat iza-teko posibilitaterik ez dutenez marginalizatuak besterik ez dira izanen. Eta ez dira gizarte bat finkatzen duten ekonomiko baldintzak serioski hartzen.



PERTSONA HELDUEN HEZKETA ETA HEGOAMERIKETAKO AS-KATASUNA. -

&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&

Kontzientziatzearen ekintza ontzat eman daiteke baina beste programa zabala baten atalitzat jorik. Egungo hegoamerikatan gure kontinentearen as-katasuna dicitzen duten ekintzaren atal bezala. Fermuki uste du egun hango jende askok surrerapen ekonomiko hutsak ez duela jendearen alienazioa gainditzen ahal.

Kontzientzia argitsu bat behar duela bistu bistan da..

Hontaz gain atzerapen hau gaitasunik-ezaren eta laterri hartako jendearen alferkoriaren ondoriozat ikustea, jende hark sufrizten duen zapal-keta ez haintzakotzat hartzea litzake. Inguruaren azterketa serios batean sustraitu nahi duen pedagogia, gure honek izan nahi duela esan badezagu, inguru honek ezartzen dituen kateak hausten saia ez badadi berriz ere. Egoera berbera honetan erdiesten den surrerapen teknikoak gogoan har dezagun ez duela injustiziaren zama handitu baizik eginen.

Baina esan dezagun argiro kontzientziatze hutsak ez gintuzkela oso urrunera eramanen, ez, ez gintuzke inora eramanen.

Behin ernaturik direnean ikasleak, pedagogiak bere lana amaitutzat emanen balu, agian honela ernatu direnak berehala mundua aldatu nahi zitik mugituko liratzen ustetan ez luke deus eginen.

Zorpi eta Zortzi // // urtetako haurra

A. -BEREIZGARRI NAGUSIENAK.-

1) -Ekintzaren pausatzea: 6 urtetan ekin-tza eta mugitze handia izan du; orain, barealdia datorkio; kanpoko mundutik piska bat aldendu egiten da haurra; bere baitan biltzen da eta bere hunki-pen sentipenak josten dabil.

2) -Beredanatze haroa du; esperientzia za-har-berrien taxutzea; entzule ona da; bere pentsa-kizunetatik guk ernareaztea ez zaio atsegina. Hots, heldutasun handiago batetara iritxi bide da.

Barnekoia da kanpokoia baino gehiago.

Bere hazkuntzaren haro berri batetan sar-tu da.

Sentimenduen berriztapen handia ari du. "Sogoeta estatu" delakoen bidez bere hunkipen edo impresioak taxutzen ari da. Gauzakien eta egoe-ren esanahiaren atzetik dabil. Pentsaketa dela Me-dio sentipen berriak sortzen ditu.

Beraz, garrantzi handia du bere barneko pentsamen munduan ari duen ekintzak: honek pesimista giroan azaltzen bultzatzen du.

Hartu gehiago egiten du eman baino. Kanpotikakoak eragiten dio orain, gero 8 urtetan gizar-te gárora itzuliko den bezala.

Ez da bakarkoia, nahiz-eta barneko pentsa-ketari emana izan. Besteren jokabidak oso gogoan hartzen ditu. Bere ama ere beste ikuspegi batetik hartzen du. Piska bat aldendu egiten da. Laguneta-ra ireki. Anaia edo arrebaren bat nahi.

3) -Irekitasun joera badu; maisuarekin ongi konpontzen da; pertsonekin erlazictan hasten da. Lagunarte giroa nabari zaio.

Arrunt gogoko du maisuarekin elkarritzeta, eta maisuak, haurrak bere buruarekiko konfidantza har dezan entseiatu behar du. Etxein berdin: gurasoen gustua egitea atsegin du.

Orain hasten da pluralean mintzatzen: "gu"...

Orain hasten ere amaren gonapetik askatzen. Zenbait alditan amaren beraren aurka jaikiko da, Marmarrean: ez duela etxekoa izan nahi, iñork ez duela maite. Kontrako jarrera hau normala da, eta luzea gainera.

Batzuetan leiala den bezala, besteetan harrosko da. Ez da oraino hari batekoa. Aldakor ageri zaigu: egun berean ere ona eta onbera izatetik umore txar eta negarti izateraino aldatzen da.



Lagunarte joera badu, bai, baina ez hainbat, ez bait du kooperazio handiko jostaketarik nahi. Ez da galtzaile ona: hanka egiten du "gezurtia, tranposua, txarra, gaiztoa" da hori esanaz. Hau normala da etikako zentzua harrizen ari da-etas: bere eta besteren txarrera eta ona ezagutzen ari bait da.

Horregatik, ez du onartzen iseka egin dezan: lotsatu egiten da, regarrari eman; bere negarra ez da hain arina eta axalekoak, barretik datorkio baizik, sentikortasuna ukitzen diobenean behinik behin. Halera, laster isiltzen da; etxetik at hobekiago portatzen da; beraz, besteek iritzzi ona ukantzen.

Kolerako joaldiak ezkutatzen dohazi: henen ordez, umore txarra ezkutatu nahirik-edo, atea heretsi....

Ez da gezurtia nahiz-eta zerbait horrela a-gertu.

Propietate zentzua heldu gabeas gauzak har-tzen ditu baina ez lapur bezala.

Andereñoren diapasoia hartzen badu adibidez, eta gauza hura bestereena dela ez badu konprenitzen, beretzat edukitzeko antsiak itsutzen duelako da.

4) Moldaketa: gure kulturan aberaski adap-tatzeko prozesoa bat bizi du haurrak. Hara: 6 urte-tako haurra ekintzaren bidez bakarrik identifika-tzen da kulturarekin.

-7 urtetako haurra ekintzaren eta santi-menduen bidez.

Bere ekintzaren garrantzia oso importantea dela, bai beretzat eta bai besterentzat ohartzen da.

Bere barneko sentipenak kultura horretako balorazioekin neurtzen ditu.

5) Arrazoitzeko ahalmena gehitzten zaio: el-karrizketan mintza daiteke berarekin. Ikuñ zenbait esaldi: "ez dezaket egin, agian ongi aterako da, uste dut badakidala, ezin dut atera"

Eta hara, zazpi urtetan berea du borrago-ma; batzueta buruaren aurka altxatzen da.

6) Iraupena: gogoko zaion ekintzetan ihar-dun chi da eten gabean. Atsegin zaio gauzak eduki-tzea, eskuetan erabiltzea baina sobera aldatu gabe: marrazki berdintsuak (hegazkien, berebil), jokoak, burrukak azkeneraino, irabazi arte.

Beraz, ez da hain aldakorra.

Bere buruaren itxiguru zentratua egon arran, ez da hain itsua.

Bere pentsakera sozialagoa da; gizarteari atxikiago da.

Munduaz eta izadiaz pentsaketan hasia da. Esplikatzen ditu eguzkia zer den, eta ilargia,

zeru, hodei etab.

Orientazio bideak hartzen hasia da denboraren eta lekuaren barne. Ari da komunitatea baloratzan ere: herria, ingurua, beste herriak

Bizi du bizitza, baina badu barnean zenbait tirabira bere sikologiaren gako direnak.



Ondorioz, asimilatze haroan bizi da, eta orekakilibrioa lortzen ari da barne eta kanpoko bi munduen artean.

B. NORTASUNA: zaapi urte-
=====

tako haurra bere buruaren kontzientzia eta ezagutza hartzen dha; eta pentsatze eta sentimenduen bidez hartzen ari da.

Asmo edo xede batzuk mamitzten hasia da, gero osokiago 8 urtetan dastatu baldin badu ere.

Izate fisikoaz ohartzen doaz batzuk. Ez du bere gorputza erakutxi nahi, batez ere beste sexoaren aurrean.

Asko arduratzen da bere ekintzetaz: bere erru eta beldurrak lotsarazten du; ez du negarrez ikus dezaten nahi. Bestek zer pentsatuko duen kezka du ez da kritikara prestatzen, eta asko bortxatu ondoan horretara emanen da.

Jokabide nabarmena: oraino laket ez zaien ekintzen haritik ihes eginen du; zailtasunean ihes horra. Behar zaio lagundi erretiratzen.

Serioski jokatuko du bere eginkizunetan: erresponsabilitatea badu, ikastolan eta etxetik kam poa batikpat.

Zuhurra da jostaljetan, gizarteko zenbait

situaziotan, Halakoxe eszeptizismo bat erlijio gaie-
tan entzun arren ez bait ditu frogatu.

Asko kexatzeko joera du: jendea gaiztoa eta
ez-justua dela sentitzen du, eta gertakizunetaz pen-
tsatzen duen heinean, beraz jerdeak pentsa dezakee-
nak asko kezkatzen du. Beldur da ez ote duten maite
eta gaizki portatu dela pentsa dezaten. Batez ere
amak eta lagunek pentsatzen dutenak asko kezkatzen
du.

Tirabira handia dago bere sendimenduetan.

Mutikoak, amaren menpetik askatzen hasten
dira, ez dute berokirik nahi. Zerbait aginduz gero,
zergaitik egin behat dut? ez dut gogorik eran-
tzungo du. Leku batetaz jabetu nahi du bere-beretzat:
leku berezia, mahiean, etxeko autoan, bera gelan,
etab.

Baina baita ere bere lekua gizarte munduan.

Sexoa: ez da oraino sexual jostaketa ager-
rik. Senide ttipi bat nahi luke, haurdun izateaz has-
ten da chartzen: amaren egoera ikusten du, baina ame-
tsezko mundu batetan. Zer-nola heldu den horretara,
jaio nolaz den edc izanen den etab. horrek ez du
kezkarazten.

D.- ERLAZIO PERTSONALAK.-

Familia barneko bat bezala agertzen da, zer-
bait lagundi ere bailetxeko lanetan.

Amarekin erlazio onak jeneralki; oso ona ai-
tarekin; mutikoa bada, gizonezkoen gaiak keztabaidatu-
ko dituzte: makina, petrola, etab. Neskatoa oso sen-
tikorra da aitaren errieta batetan.

Bakar batzuek ez dute onartzen etxeko giroa
eta ez dira erraz moldatzen. Nola nahi ere normalean
arrunt gustora dago bere sendiarekin, eta bere lagu-
nen sendiarekin, konparatzean ontzat ematen du berea.

Bere lekua egin nahi du sendi barnean: nahiago du bere gela bat aproposa. Askotariko maite du anaia ttikia, bera senide nagusi bat izango zaio; enbidia piska bat ukantzezake ttikiari fabore gehiago emenez gero. Senide zaharragoa du miresten eta beronen influentziaren pean aurkitzen da, nahiz-eta hau kaltegarri izan batzuetan.

Ez du konpainiarik esijitzen sei urtetan bezala. Badaki bakarrik egoten, baina erraz jostatzen ere da bere kidekoekin. Batzuek etxean nahiago dute, besteek kanpoan. Lagunarteko taldeak osatzeko garaia dugu hau. Baina joko koletiboak ongi organizaturik ez izenez gero, bakar jokoei jarraitzen die. Taldean ukantzeen lekuak asko kezkatzen du. Ez dezaiotela irri-barrerik egin.

Sexual differentziak ez daude garbiro nabermen durik. Halera, mutikoei aspergarri zaizkie neskatoak, Hauetako ez laket mutikoen zakarkeriak. Jende arrotza ezagutzeko grina badute.

Jolasak:

Zoratu egiten da bere jokorako intereskin.

Lehen baino ahalmen gehiago bakarrik jostatzeko ere.

Hama jostailuak ditu gogokoenean. Buruhauste eta asmakeriak.

Ikastolak:

Irakasleak zer-ikusi handia du 7 urtetako haurren moldaketan.

Zabaldu egiten da, erlazio pertsonalaren bideak.

Eskola eta etxea kanpo bereziagoak dira zazpi urtetan.

Amak ez dezaiola lagun eskolara, ez dadila johan ikastolara hau; nahiago du gauzak ikastolan uztea; ez da mandatarik ona ez maisu, ez-eta etzeko-entzat.

Zaratatsuak dira, bat hasi orduko.

ZORTZI URTETAKO HAURRA

BERE IZGARRI NAGUSIAK.

Zazpi rute pentsaketa adina da, zortzi, ordea, hartu dituen elemendu eta tresnekin gizarte ireki eta zabaltzekoa. Bere sentipen eta eskemak gizarrian dastatzen edo entseiatzen hasiko da. Hara, haurra zortzi urtetan gizontto bat da. Pentsatzen badaki, elkarizketarako gai da; bizkorra da bere erreaziostan, irekia.

Bere jokabidea: lasterra, irekitasuna baloratzea: berari eta berarenengatik gertatzen den guztia baloratzen du.

1) Gorputza bera ere zerbait heldu da, zeren hazi bait da; gorputzaren proporzioak dira nabarmenzen.

Zortzi urte zazpi baino sanoagoa da; gutiago nekatzen da; joko zakarrak ditu maite. Bizitzeko ritmoa zaio gehitzen: mintzatzean, idazterakoan, erreazioetan bizkorragoa da. Siko-motorraren eragina handitzen doña: Adibidez, jan lehen bai lehen, aulkiaren ertzean, galtzerdiak jasotzeko eta ... kanpo-fa-doha korrika.

la bortz mila urte hantan segurik. Bainan miatzen baldin baditugu ipuin bilduma handiak, hala nola Dictionnaire des contes populaires, Bibliotheque bleue des XVII et XVIII siecles, Die Marchen der Weltliteratur, Kondjahon Monogatari, eta bertze, aitzetza behartuak gara ipuin-beretsu keta ederra kausi ditakeela nonhai, nehork ez dakiolarik nork nori dituen ebatsi edo mailegatuak. Adibidez guk Axular-ez erraiten baitugu bere itxalak galdu zuela deabruaren atzaparretan utzirik, alemanek eta italianoek gauza bera kondatzen dute bertze zenbaitez; zeruan zaldiz sartu zeñaffen ipuina ezagutua da Errusian ere; Disciplina clercalis liburuan hatzeman ditut zuek Amezketako Fernandori eta guk Gameko Axigarri eratziki balentriak. Ez da dudarik: populu guztiak itsaso berean ari izan dira arraintzan, gero arrainak bakoitza bere gisa apailatu baditu ere mahaineko

Euskal-ipuinen zenbait itxura.-

Mitologiari buruz bazter ditzagun bizpahiru gezur. Pio Barojak sartzen dauzku Thor, Aitor, Mai-tagarri euskal sinesketan: ez ditut behin ere gure ipuinetan aurkitu, ez-eta Urtzi famatua ere. Pick ez omen zuen federik baina Xaho profeta baitan nolaz ez? Gure xaharrek ez zuten fata edo hadurik aipatzen, nahiz Europa guztian bazuten horiek arrakasta.

Aldiz lamiak baziren ausarki gure alegietan, hetaz ez delarik mila urte hantan bertze nehum oroitzapenik gelditzen.

Bertze xehetasun bat: bildu diren euskal-ipuinetan behinik behin, ez da lizunkieriarik = arruntak, gordina eta atrebituak bai, baina ardurenean frango pülliki erranak, sano-sanoki, sendimendu

Beren gaizki eta ongi jokatzearen zentzua, hots, zentzu etikoa, hartzen ari da. Garbiro ageri da hau bere zenbait jokabidetan: ez dut gehiago egin-do, esango dautzu damuturik.

Propietatearen eta diruaren zentzu handia du. Justiziaz ere sentikortzen doha.

Errazki iraintzen eta koleratzen da, batipat amarekiko erlazioetan. Sentikorra da kritikako. Amak onartzen duen ala ez ikusi nahi du bere irribarrearen bitartez. Amaren isiluneak mingarri zaizkio. Honek, ongi ikasia duela esan hahi du amak zer erreakzio mota eduki behar lukeen. Haserretzen delarik ere ordea, berehala da adiskidatzen.

Bere lagunek eginiko kritikak aiseago jasan ohi ditu; galtzen ere ikasi du. Honek denak, zera erakusten du: baloratze zentzuaz jazten dojala eta, hau dela medio, kulturaren eta gizartearen eremuan zabaltzen ari dela irekitasunez. Maiz bere burua besteen gana luzatzen du, eta besteren tokian jarriko da. Eta orduan beste hura balitz bezala sentitzen da.

Jakimin handia du gizarteko eta gizonen erlazio guztietaz... Ezkonduen hareman, sexual bizi-tzaz etab. Ez du normalki interes handirik. Munduan hastapenez, gizadiaren gertakizunez, geroari buruz ... bai, badu interesa.

Denboraren eta lekuaren barne norabideak bilatzen hasi da. Baita ere herriaz eta pertsonez jabetzen da. Beste herrietako kontuak jakitea eta batipat hango haurrei buruzko gauzak arras gogoko ditu. Bere gisara pentsatzen ikasi du; gizontto bat da, eta berak topatu nahi ditu erantzunak. Gezurrezko ipuinak ere kondatzen ditu besteren aurpegira begiratuaz.

Zortzi urtetan argudio, arrazoi bide, kon-testu eta ondorioak ikusten hasten da. Bere burua beste pertsona bat bezala ikusten hasia da gizartean.

B) NORTASUNA. -

Gogozko eta barneko pertsonalitate batetik ateratzen ari da haurra. Kanporat jo nahi duen nor-bait honek jendea ezagutu nahi luke, lekuak ikusi eta beti ere zerbait egin. Bere nortasunaren aurpe-gia agertu nahi dauku.

Pertsona izatearen kontzientzia du jadanik; gizartean norbait izateko bidean da; bere buruaren kontzientzia hartzen ari da eta besterekin dituen differentziak badakizki: betaurrekoak, ezkerra, bes-teak baino hobea lanean edo ez.... baina ez dute sobera gehiegi gauza hauek aztoratzen,

Dramatizatzeko antze handia du; zineko edo tebeotako pertsonaiekin berehala identifikatzen da.

Manatzerik eta agindu zerrrotzik ez du mai-te, sujerentzia eta zeharbidetik datozenak bakarrik.

Guztiz begiko ditu fabore batzuk: berandu-xeago hoera, telebistan

'Baloratzen ditu besterekin dituen erlazio-ak. Hara, zazpi urtetan bere arabera bizi zen; ora-in zortzi urtetan besteren arabera ados bizi nahi luke. Bien arteko differentziak eta hozkadurak: sor-tzean, negarrari emanen zaio.

Sexoa: jaio berrien inguruari dute interesa, sortzea, jaiotzea, etab. Aitaren parteak haurraren sortzeko duen zer-ikusiaz ez da kezkatzen zortzi urtetako haurra.

Neskatoetan galde gehiago sor daitezke.

Lehendabiziko informazioa gurasoen gandik behar lukete.

Beste sexoarekin erlazio interes bat ere hasten; elkarrekiko zenbait joko
brain hasten da.

D) ERLAZIO PERTSONALAK.

Gauza erraza izan daiteke etxe barnean "ongi eramatea" elkarrekin; alabaina hemendik kanpo da ongien portatzen. Ez da zazpi urtetan bezain leiala. Orain egiten duena umorearen gora-beheran dago.

Bere bizia antolatzeko aski laguntza behar du zortzi urtetan. Soberazko ekintza-bidea duelako, izan daiteke desordenatua ere. Amaren laguntza eta amak gauzak planifikatzen laguntzea beharrako du behinik behin.

Amarekin: importantea da haurrarentzat amak egiten duena, lehen bezelaxe, baina orain are gehiago da beraz amak pentsatzen duena. Oso zorrota da bere amarekin, eta ardura handia eskatzen dio amari. Arrunt guti dira amak haurrari buruzko zerbaitetan faltatzen badu, segidan barkatuko dioteknak.

Senide ttikiagoekin: aski ona da. Bera nagusiago izan arrep, erraz ematen da jostaketara besteekin; koleratu eta haserretu ere bai zenbait alditan.


Egiazko lagunen eta adiskide minen garia da hau.

Nagusiagoak ere miresten ditu. Taldean ongi moldatzen da jostatzeko zortzi urtetako haarra; gizarterako itxurak ere hartzen ari da. Hobekiago portatzen da etxetik kanpo. Ongi maneiatzen dute-lefonoa eta nota edo abisuak ere ongi idazten ditu.

Charra: irakurle hori, motz eta laburki sikoologiaren putzuan ziprizzinduriko ideiak dituzu. Zerbait ikasi nahirik liburuaren bat ikertzen zabil-tzanean, hartzen diren nota batzuk, besterik ez. Eta dauden daudenean ematen ditut. Orain, zu-re buruaren eta esperientziaren haitan behar ditu-busti.

Horra, zerbaitetarako zerbitzatzen badautzue.

Antton Haranburu.



Gaskal - Ipuinak

Aipatzera goazen lan hunek baluke liburu oso baten betetzekoa. Ez dugu hemen emanen erran litazkenen laburpen bat baizik.

Gizonaren amets beharra .-

Orok dakiguna: gizon gehienak mundu hon-tako biziari kirets-kino bat aurkitzen diote, eta nolazpait, gogoz bederen, ihes egin nahi diote ametsitarako munduetarat murgilduz.

Ez dute hortarako ahanz-gailu eta zora-gailu eskasik: batzuk arras ohoragarriak, hala nola lana eta otoitz; bertze batzuk higuingarriak, hala nola edari eta drogak; eta hirugarrenekorik, bierarreko zonbait, hala nola jostetak.

Josteta-moduen artean berexiko ditugu idurimenezkoak, hala nola kantuak, teatroa eta ipuinak. Gaiez segurik hiru gauza horien arteko mugak ez dira berex-errazak. Askotan iturburu ber-berak dituzte. Kuberoan eta Lapurdin, hasteko, berrehun bat urtez sartu dira eta etxez-etze saldu Frantziatik heldu ziren liburuxka axal-urdin herrikoiak.

Troyes eta Tolosa-ko Bibliotheque bleu hortarik jalgi basa-ixtorioak hazi dituzte berdin pastoralak eta ipuinak. Adibidez, "Jean de Calais" pastorala eta baxenabartarren Ixabel-en gertakarien kontua ahaide hurbilak dira. Halaber "Genevieve" pastorala eta Lapurdiko Marie Valentine ipuina. Zenbat ipuin bestalde kantu bilakatu direnak edo antzerki gisa itzuli? Orroit Berreterretxez, Orreagaz, Santxo Azkarraz, Ehun dukat-ez.

Baina geldi gaiten ipuinen eremuan.

Non bizi izan dira?

Uste dut bortz bizitegi ukana dutela Euskal-He
rrian:

-Supazter xokoa, afal-ondoetan familia biltzei
zelarik su-garren aintzinean.

-mahain-ingurua, bazkai artean, bataio, komu-
nione, ezkontza, ogi-joite (gari-jotze) apairu luze-
ak bazirelarik.

-ostatua, bereziki hartaz ase zirenean musla-
riak ixtorio bitxiena nork konda hasi-eta.

-Eskaratze edo selairua, arto-xuritze aratse-
tan, hauzoak elkarreratzen zirelarik, lanaren arin-
tzeke ez bait zitekeen mutu egon.

-Ihiztari-bilkurak, hor, emazte ez haurrik ez
izanez, ixtorio gazi gizen, gordinak haizu bait ziren.

Egungo egunean ipuin-akademiatxo horiek gal-
tzen doatzi, bizimodu zaharrak itzal-araz, irratia
eta telebista orotan sartzen diren ber.

Ikertu nahi badituqu, nondik bil?

Oraino han-hemenka entzun ditazke, eta uste
dut ez direla denak bilduak, hurbiltzeko ere, berezi-
ki Xuberokoak. Hetaz behar litake axolatu.

Baina corpus bat nahi baluke norbaitek apa-
ilatu, hatzeman ahal lezazke idatzi-ta aldizkari
askotan barreiaturik, bereziki mende bat eta erdi
huntako aldizkari, almanaka, errebibista, astekari eta
egunkari batzuetan.

Halere ez da, beharrik, lan guztia egitekoak. Bilduma baliosak badira eta biltzaile handienen izenak a-be-de-ka huna zein diren:

- | | |
|--------------------|-------------------|
| -Pierre d'Anjou | -Irigarai Aingeru |
| -Marie Ariztia | -Kirikiño |
| -Xalbat Arotxarena | -Lekuona M. |
| -Azkue | -Leon Leon |
| -Julene Azpeitia | -Linazasoro Iñaki |
| -Barandiaran J.M. | -Monteiro Mariana |
| -Barbier Jean | -Muxika Gregorio |
| -Bilbao Felix | -San Martin Joan |
| -Bitaño | -Thomasset |
| -Carpenter anderea | -Uranzu |
| -Cergnand M. | -Urruzuno P.M. |
| -Claveria Carlos | -Urbel |
| -Elissalde Jean | -Vicendoritz |
| -Elissanburu J.B. | -Vinson Julien |
| -Etxeberri J.B. | -Webster W. |
| -Ghiese | -Zabala Antonio |
| -Goizueta J.M. | -Zatarain Ambrosi |

Nor edo nor shantzi dudala edo shantzi banu, barka bekiti: ez dut erdainuz nehor bazterrerat utzi, eta gogotik luza nezake ipuin biltzaile horien xerrenda.

Euskal ipuinak zenbat diren orotara...-

Ez dakigu xuxen erraiteko. Ipuindegi hainitzetan ipuin berak edo beretsuak bilduagatik, ez-berdinak baizik ez kondatuz, erran daiteke milaz goiti badirela hilero: hamabi ehun bat gutienez, edo dirudienez. Jakina: ez ditut barne ezartzen, merezimenduz beteak badira ere, izan diten edozoin herritakoak euskaraz hitzez-hitz itzuli erdal ipuinak, nahiz batzuetan baduten gure hemengokilakoen ahaide tasun zerbaiz.

Nola klasatu euskal-ipuinak?

Azkuek bi taldetan ezarri zituen: luzeak eta laburrak. Berexkunde hori ez zait hanbateko. Gai bera labur ala luze ditake. Bi kondatzaile eder eza-gutu ditut gaztaroen: Guichou apeza eta Leon Barbier, Jean Barbier-en anaia. Guichou-k ipuinaren giharra ematen zuen hitz gutiz, bizi-bizia. Leon Barbier-ek ipuin ber-bera irauin-araziko zeutzun xehetasunez, ez dakit zenbat denbora. Zer beharko zen bada, ala Gi-chou-rena laburretan ezarri eta Leon Barbier-ena luzetan? Ez du kanorerik.

Jean Barbier-ek ere bi talde nahi zituen: alde batetik ixtorio-mixterioak eta bertzetik bertze guztiak. Lakeago zait zatikatze hori Azkue-rena baino. Haatik ez zait batere itsusia Zerbitzari proposatzen zuena: lau ipui mota: amesgarriak, lazgarriak, altsagarriak eta jostagarriak. Funtsean, ipuinek darozketen sendimenduetarik jujatzen zituen.

Nihaurrek behar banitu klasatu, bortz mota handi berex nezazkd:

Lehenik: paganoak

Bigarrenik: basa-giristinoak

Hirugarrenik: basa-ixtoriak

Laugarrenik: amets hutsezkoak

Bortzgarrenik: irri solasak



Erran gabe doha zati bakoitzak balauzkela kapitulu andana bat.

Adibidez, ipuin paganoetan euskal mitologia-ko izaiteek balukete, zoinek bere kapitulua: bai lamiek, bai Marik, bai hunen semeek, bai basa jaun-andereek, bai bertzeek.

Gisa berean, Kapitulu bana basa-giristindegian hartze lukete Testamendu zaharrak, Testamendu berriak eta Sainduen bizitzak, euskal-ipuinek eratxiki deizten sineskerien eta mirakulukerien gatik.

Basa-ixtorioak ere baluke zonbait kapitulu-ren betzkoa, dakigularik nola egiazko gertakariak jendeen oroitzapenean ezinago aldatzen diren: aditzekoak dira gure konfatztaileen ahistik, ez bakarrik errromatarren haroko pasakizuna, bainan haro berriko-aki Aipa dezadan Zesar, ala Karloman, ala Santxo Azkarra, ala Napoleon, ala Hitler, ez duzue aise astatzenten ahal zer berri harrigarriak aterako dauzkitzuen!

Bertze talde handietan, kapituluak nortzuka edo jende-motaka berex nezazke. Adibidez hor gehienik aurki genezazke:

Errege-erreginak
Medikuak
Apezak
Sakristauak
Kontrabandistak
Buhameak
Sorginak

Soldaduak
Juje eta Hauzilariak
Ihiztariak
Indianoak (amerikanoak)
Atso gaiztoak
Zozoak
Ostalerak

Nondik atera ditugu ipuin horiek oro?

Horietatik hainitz ez dira baitezpada Euskal-Herrian onddoen pare sortuak. Ehunka aspaldi danik lur huntako eskualde guztietan gaindi kurri dabilta erortzen diren toki bakoitzean itxura berezi bat hartuz.

Encyclopédie de la Pléiade deritzanak badauka hiru tomotan munduko literaturen ixtorioa. Hartan ohar ditake ipuinek harrigarritzko eremua eduki dute-

la bortz mila urte hantan segurik. Bainan miatzen baldin baditugu ipuin bilduma handiak, hala nola Dictionnaire des contes populaires, Bibliotheque bleue des XVII et XVIII siecles, Die Marchen der Weltliteratur, Kondjahon Monogatari, eta bertze, aitor-tzera behartuak gara ipuin-beretsu keta ederra kausi ditakeela nonhai, nehork ez dakielarik nork nori dituen ebatsi edo mailegatuak. Adibidez guk Axular-ez erraiten baitugu bere itzalak galdu zuela deabruaren atzaparretan utzirik, alemanek eta italianoek gauza bera kondatzen dute bertze zerbaitez; zeruan zaldiz sartu zeñaren ipuina ezagutua da Errusian ere; Disciplina clercalis liburuan hatzeman ditut zuek Amezketako Fernandori eta guk Gameko Axigarri eratxiki balentriak. Ez da dudarik: populu guztiak itsaso berean ari izan dira arraintzan, gero arrainak bakoitzaik bere gisa apailatu baditu ere mahaineneko

Euskal-ipuinen zenbait itxura.-

Mitologiari buruz bazter ditzagun bizpshiru gezur. Pio Barojak sartzen dauzku Thor, Aitor, Mai-tagarri euskal sinesketan: ez ditut behin ere gure ipuinetan aurkitu, ez-eta Urtzi famatua ere. Piok ez omen zuen federik baina Xaho profeta baitan nolaz ez? Gure xaharrek ez zuten fata edo hadurik aipatzet, nahiz Europa guztian bazuten horiek arrakasta.

Aldiz lamiak baziren ausarki gure alegietan, hetaz ez delarik mila urte hantan bertze nehungo oroitzapenik gelditzen.

Bertze xehetasun bat: bildu diren euskal-ipuinetan behinik behin, ez da lizunkieriarik = arruntak, gordina eta atrebituak bai, baina ardurenean frango pülliki erranak, sano-sanoki, sendimendu

Beren gaizki eta ongi jokatzearen zentzua, hots, zentzu etikoa, hartzen ari da. Garbiro ageri da hau bere zenbait jokabidetan: ez dut gehiago egin- do, esango dautzu damuturik.

Propietatearen eta diruaren zentzu handia du. Justiziaz ere sentikortzen doha.

Errazki iraintzen eta koleratzen da, batipat amarekiko erlazioetan. Sentikorra da kritikako. Amak onartzen duen ala ez ikusi nahi du bere irribarrearen bitartez. Amaren isiluneak mingarri zaizkio. Honek, ongi ikasia duela esan hahi du amak zer erreakzio mota eduki behar lukeen. Haserretzen delarik ere ordea, berehala da adiskidatzen.

Bere lagunek eginiko kritikak aiseago jasan ohi ditu; galtzen ere ikasi du. Honek denak, zera erakusten du: baloratze zentzuaz jazten dojala eta, hau dela medio, kulturaren eta gizartearen eremuan zabaltzen ari dela irekitasunez. Maiz bere burua besteen gana luzatzen du, eta besteren tokian jarriko da. Eta orduan beste hura balitz bezala sentitzen da.

Jakimin handia du gizarteko eta gizonen erlazio guztietaz... Ezkonduen hareman, sexual bizi- tzaz etab. Ez du normalki interes handirik. Munduan hastapenez, gizadiaren gertakizunez, geroari buruz ... bai, badu interesa.

Denboraren eta lekuaren barne norabideak bilatzen hasi da. Baita ere herriaz eta pertsonez jabetzen da. Beste herrietako kontuak jakitea eta batipat hango haurrei buruzko gauzak arras gogoko ditu. Bere gisara pentsatzen ikasi du; gizontto bat da, eta berak topatu nahi ditu erantzunak. Gezurrezko ipuinak ere kondatzen ditu besteren aurpegira begiratuaz.

- "Atea hirutan jo behar
- "Hitz bat hirutan errepikatu
- "Gerlan ibili zazpi urtez
- "Familia batetan zazpi ahizpa
- "Sagar-ondo batek zazpi sagar izaki
- "Herri batek zazpi eihera
- "Etxe batek zazpi leiho

- Epeak ere gisa berezi/batez markatzen dira:
- "Semea etxera itzuli zen urte eta egun baten buruan
- "Handik zortzi egunera karta igorri zuen ...
- Eri hainitz hiltzen dira pheratu-ta bederratzurrenean

- Ororen buruan qure ipuinek zer salatzen dautute qure aintzinakoan gogoeraz?

Aitor dezagun norbaiten jujatzeko haren ipuinaren ikertzea ez dela naski biderik xuxenena

Bainan tira!

Ipuinen argitarat jende xehea nik urrikalgarri daukat. Chartze eta jakitate gutikoa agertzen zait; oro axal eta ilunbetsu ikusten zituela lidurike.

Jendeak eta gauzak gaingiroki azaltzen zituen: gehienetan ezin jakin Karlomanen jauregi ederrak zer zuen bada hainederrik, edo Ortzaizeko sorgin itsusiak zer hain itsusirik! Xehetasunik ez!

Izan zadin lurraz, izarrez gorputzaz, eritasun ala sendagailuez, ipuinetan bizi ziren otsadi-

no erdi-haroko ustekeriak.

Erlixionea ere ahal bezalakoak erdi pagano, erdi giristino, dena sineskeria.

Ametsak labur: diru puxka baten biltzea, ase on baten egitea, ez jateko finez, bainan jaki gizten ausarkiz.



Mundua hiru partetan ikusia: handi-mandiak, gaiztaginak eta populu xehea. Bitxi da ez bait dira inoiz nehoiz burgesak agertzen. Errege-erreginak gehiene-tan errespatuz inguratuak. Gorteko jaun-andoreak bizkarkin maltzur eta gaiztotzat edukiak. Jende beltza, buhame, choin, sorgin eta holakoak, madarikatuak, salbu fortuna egin-eta.

Miseria, gosetea, izurriteak gerlak aipu dira, zergak ere eta hau-zolanak; bainan oro ezinbertzeak zaizko kondatzaileari, hots! halabe-harra. Ez du iduri ezeria huntarik ateratzea asmatzen ere zukeela, gure aintzinako populua. Kirets eta nagi zagon, herrestan bizi.


Oro har, ipuin xaharra ihes-bide zirelarik, banago ustegabetarik ez zirenetz lo-belar!

Barkatu iritzi ilun horrekin bukatzen baitutene lanttoa.

P. Laffitte.

Charra: Euskal-ipuinei buruz Laffitte jamek moldaturiko idazlan xukur hau arras interesgarri jotzen dugu Ikastolako lanari adi gaudenontzat. Behar genuke irakurri eta hausnartu, ea gai hau hornitu ondoan behar bezala klasaturik, liburuxka bat edo beste "Ikastola-Liburutegia" aberasteko ematen dugun luzaro bairo lehen. Horretaz gain, badu jakingarririk ere gure ikastolentzat ipuin saila emankorrago bilaka dadin.

%/%



ZAILTASUNAK.

Testo libred dela-eta

Hasieran E.Freinet-ek bere idazti baten agertzen duen iritzia:

"Testo librea bizitzaren zati bat da. Honek ez du esan nahi, guztiak literatura aldetik onak izan behar direnik."

Baina gure haurrek egiten dituztenak bizitzaren zati ote dira? Oso zail zaigu, ohartu arazi gabe edo agindu gabe, haur batek gai libre bat egin dezan. Ez dut nere esperientzia aldetik besterik hitzegiten, ez bait düt honetaz ikasi; baina, ene ustez, ez diogu haurrari bere sentimendu eta egiteak idatziz agertzeko beharra bila arazten.

Denean bezala, lehenik motibazioa eman behar zaizkio, eta ondoren, berak arakatu beharko du behar hori. Gogoratuaz edo aginduaz egingo duen hori, ez da inolaz neretzat, gai librea. Deskripzio huts batetan gelditzen dira sentimendu ahalmenak alde batera utziaz. Hona hemen nere haurrak gehien bat egiten duten testoa:

"Goizean jeiki eta hamabietako mezatara joan nintzen. Gero mezetara iritxi ginanean meza entzua eta kiosko batera joan nintzen, goxokiak erosi nituen eta etxera joan nintzen. Ondoren bazkaltzeko mahaiean exeri ginan....."

SENTIMENDUEN LANTZEA.

Memento bakoitzean inguruau ikusi edo nabitu zuena ez da agertzen. Egia esan, ez dut ikusten zer bidetik eraman edo zuzendu behar diren hau lortzeko. Bai ikastolan edo kanpora egiten ditugun ate ralditan, sentimenduak zuzpertzen saiatzen naiz:

"Hau polita da" "Pozik nago" "Pena hartzen
 dut". "Alai arkitzen naiz" "Triste nago"
 etab. Ez nadin oso pesimista jarri batzuetan, horre-
 lako batzuk agertzen bait dira:

"Atzo goizean jeiki nintzen eta amatxok
 esan zidan:

- Andereñoekin S. Migelaz joan behar duzue eta
 jeiki zaitez.

Ni oso pozik jarri nintzen.....

NONDIK NORAT.-

Idazten duten guztia sentimendu aldetik
 zuzendu behar denik ere ez dut esan nahi. Beste
 mila gai erabili daitezke eta hau agertzen dut adi-
 bide bezala:

"Abere gehienak lau anka dituzte. Zakurra
 aberea da eta gizonaren oso laguna. Ez dut iñioiz
 entzua zakur basatirik badenik.

Horregatik, gizonaren inguruan ibiltzen
 dira".

Haur baten eguneroako bizitzan berezia den
 ezer gutti gertatzen da. Adinarekin batera bere
 sentimenduak dohaz oinarritzen eta arrazoimenarekin
 loturik, hauek duten kanpo zabal hori, deskubritu-
 arazi behar zaie, pertsonak duen aberastasun handie-
 netako bat bezala.

Hona hemen, bere anaia gaixorik zegoela-
 ta haur batek egin zuen gai librea:

" Hamarretan operatzen dute nere anaia. Nere etxeian guztiak honetazpentsatzen daude eta giroa zeharo goibela da. Elena negarrez ikusi dut eta jan-gelan sartu naiz. Beti hori pasatzen zait, nor bait negarrez ikusten badut, nik ere negarrari ematen diot".

Mari Kruz.-



Goberrilo

Sareko
Bilboko
Goberriloa

Irakurri dut "Sari-keta-arazoa" dela-eta, Urriako aldizkarian atera zenuten informea. Egia esan harrituta gelditu naiz.

Bata bestearen ondoren irakurri ditut aldizkari bertan X, Lekunberri eta zusk eginko antikuloa. Eta batak azaltzen dituen sistemaren akatsetan erori zaretela uste dut.

Lekunberrik dionez, irakaskintza, maila denetara zabaltzeak demokrazi eta berdinotasun batetara eroango ginduola ematen zuen. Baino horrelako demokraziarik ez da iritxi, eta ikusiten dugunez, nekez iritxiko da. Lehengo akatsak berdin-berdin jarraitzen dute gaur egun: batzuek balarrik igo eholi dute gora, besteak ezin dute gora egin, nahiz eta "aukera" berdina egon denentzako.

Gaurko egoerari begira, horixe ikusten dugu: batzuk estudioak egin eta gora igo dira; beste askok ez du estudiorik egin ahal izan eta ez da gora igo.

Baina arretaz aztertu behardena da, zergatik igo diren batzuk gora eta gehienak zergaitik ez diren igo.

Planteamendu hau geure artera ekarriko zuke nik: zergatik eta nola andereño edo irakasle batzuk Magisterioko tituloaren jabe diren eta zergatik beste asko ez diren titulo horren jabe?. Batzuek "ahal" izan dute, besteek ez.

Baina azter dezagun ongi zertan zetzan

eta datzan "ahalmen" hori. Ez ahal da izan etxeko ekonomiaren ahalmena? (bakarren batzuek ezeztuko didate baina gehionek ezingo zutela uste dut. Hon-taz Arrasate bailarako talde batek azterketatxo bat egin zuen Donostiako azken kursilloan, eta ez zuen ezetzik jaso).

Beraz, nire ustetan, titulca dela-eta egin duzuten mailaketa hori Lekunberriren artikulo-en salatzen diren akatsetan erortzea da: diruz ahal duenak, kultura baten jabe izango da, eta diruz ezin duenak kultura hori gabe geldituko da (eta makurrena da, normaltzat jotzen dugula jokabide hau).

Behin mailaketa hori onartuz gero, zail ikusten dut guk (denon ametsa eta asmoa dela uste dut) darabilgun pedagogiari ematen diogun zeregin lortzea: haurrak gizarteko situazioak "kritikatzeko" eta kritikatu ondoren zuzentzeko kapazitatzea, haurra hor izan dadila berzko personalitateari begiratuta, ez gaurko gizarteko baloreak kontuan hartutak (dirua, sasi-jakintza ...).

Guk, personen baloreak ez-baina jakitea tituloa eta horrelako arrazoien gatik geure artean mailaketak egiten baditugu, ez dezagun ametsik egin haurrei demokraziaren zentzurik ematen diegunik.

%%%%%%%%%

Egia esan, ez dut uste zuen planteamen-dua jatorra izan denik.

Nik sañkonkiago azertuko nituzke, aipaturiko lan horretan azaltzen dituzuten puntu batzuk:

1- "Lan sariak bizitzako beharrei gerantzuteko lain behar duela izan" (36-ean orrialdean)

Kriterio horri ondo derizkiot, baina ez duzue behar hainaz kontuan hartu. Bestela ez da ikus-ten 2.500,- pezeta hoien aldia zergaitik den. Bizi-tza berdin eskaintzen dio bateri eta hainbat langa dut.

esaten batzuk besteari baino behar haundiagoa izatea, estudioak, etxeko beharrak, ibili beharrak). Hauek besteari baino gehiago eskatzea ongi dirudit. Gaizki ikusten dudana mailaketa egiteko tituloa aitzakitzak jartzea, eta ez "bizitzako beharrak".

2- "Probintziako akordio" delako hori ez dut irakurri, baina ez dut ikusten bere beharrik ere. Zer kriteriokin egina dagoen ikusi behar da lehenbizi.

Pedagogiari buruz egiten ditugun planteamendua eta jokabideak onartzan ahal ditu? behar bida, haren oinarriak ez genituke onartzuko, eta ondorioak onatzea ez zait bidezko iduritzan.

3- "Estatuko irakasleek baino askoz gutiago ezin dutela irabazi titulo dun andereñcek, bestela andereñko berririk ez dela izango" (38-gn orr.)

Ikastolara edo Estatuko eskola batera sartzeko arrazoiak hori balitz, nik ez nuke inongo esperantzari jarriko holako andereñko batengan. Ikastolara sartzen den irakasles hori baino berotasun haundis gärik ez baleza, zertarako ikastola? Folklorekeria hutsean geratzen da, eta horretarako ateak hertz eta beste nonbaitera joatea hobe izango genuke.

Irakasleori euskal kultura eskatzen zaigu. Baino kultura baino askoz gehiago behar dugut euskal nor tasuna, euskal arazoi euska planteamendua egiteko ahalmena, euskal arazoei soluzio bide bat ematen saiatu behar dugu geure maila



HANDY PANDA

4- Tituloaren balioa.

Arrasate bailaran, irakasleen sariaketa planteatutogenuenean, hemen ere galde berdina egin zen: titulo dunak eta gabeak berdin jaso behar zahar dute? Horra galde horri emandako erantzuna:

- Bataren eta bestearen lana berdinak dira eta erresponsabilitate haundia dute haurraren heziketan, baina ezin leike esan batak besteak baino gehiagó duela edo erresponsabilitate hori hobeto betzen duela tituloa duelako. Gurasoen aurrean prestigio gehiago izateak, ez du esan nahi besteek baino lan gehiago egiten duenik.

- Magisterioko tituloa ez du seguratzen, ez, euskal kulturarik, ez-eta euskal formaziorik... Eta ikastolak euskal problemei euskal erantzuna eman behar diotenez, Magisterioko tituloa ez die horrelako heziketarik eman titulodunei.

- Lehengoaren ondorio bezala, zenbait egoera eta eginkizun ikusi ditut neure inguruau:

- - titulo dun eta gabeko lana aztertzerakoan, ez dut uste gabekoena lana kalitate gutiagokoa izan denik, eta denik.

- Ikastolak sortu eta iraun titulo gabekoei esker egin dira gehien parte.

- Gaur egun ere titulodunak haina ahalegintzen direla zihur nago (denetik egongo da noski). Halaber guztiz ere, beren kondizioek ez dute segurantzia minimorik ere, eta bigarren mailako konsideraturik daude.

Oso luze ibili nahiz. Bainan lan sariari ematen zaion soluzioak gure iritzien ispi lu direla uste dut. Oraingo honetan ere soluzioaren gainetik iritzi edo barneko komenzimendu batzuk ikusi ditudala uste dut; komenzimendu hoik "titulo" horren balorazio (gehiegia, niretzat) eta balorazio horrek dakarren katea dira: gizartean titulo dunek balio dute etab.

Oso ongi egin duzute zuen jokaera azaltzerakoan. Nik egin dautzuedan kritika hau ez zazutela gaizki har, mesedez. Gure arteko beste jokaera askotara ere kritika sakon bat zabaldu behar litza-keela uste dut: gaur egun bakoitzak bere lekuan jauntxo gara, baina ikasketa-programak bateratu, beste herrietako ekintza eta giroa ezagutu eta kritikatu nahi ditugu memento-hontan, komenigarri ikusten dut baita ere geure jokabideen azterketa eta kritika: hots, geure buruari eta geure lan eta geure ekin-tzei autokritika bat egitea.

TOMAS ELORZA .



Ikastola Liburuakiaz,

Ikastolaren arazoetarik handienetako bat testo liburu eta irakugaiena zen, eta da. Hutsune bat nabari da eta ikastolako haurrak gehitu hala klarkiago ikus daiteke. Handik eta hemendik egiten den eskabidea hauxe da: ahalegin daitezela ardura-dunek eta eman bezaiote, lehen bait lehen arazo honi, erantzun egoki bat. Ezertan hasi orduko ohar-tzen ginen honetarako dirua behar dela, eta diru honen faltaz, lana oso mugatzen dela. Beraz, diru iturriren bat bilatzea izanen zen lehen eginkizuna.

Bestalde probintzia bakar baten mailan ez genuen ikusten arazo honi erantzun jator bat eman genezaiokeenik. Ekonomizko oztopoak gainditzeko tiradak luze xamarra behar dute alde batetik. Eta gure helburuen erdiesteko bateratsu lanean ari gintezen beharrezko ikusten genuen bestetik. Are gehiago euskara batzen biziki saiatu behar dujin gure garaio-tan.

Lau probintziotako arduradunok bildurik ginen batetan, honoko proposamen hau egin zeukuten: Talde bat Wal Disney-ren "Gauza harrigarriak" ize-noko liburu-sorta saltzen hastera zihoa eta banaketa honen bidez, banaketa honetan laguntzaile egiten baginen, FONDO bat sor zitekeala ikastolako testoak eta irakurgaiak inprimatzeko. Liburu-sorta honen banatzairearen (Iñaki Beobide) arduradunek, beren komisioetatik zatirik handiena -arpidedun bakoitzeko 500 pezeta- fondo horretara botako zituztela.

Akordio batetara heldu ginen eta alderdi bakoitzak hartzen zituen konpromisoak sendotzeko

papera aldatu genituen. Lehen esaniko liburu sortaren banatzaileek, herri bakóitzeko ikastola-gurasoen zerrrenda bat egin genezaien eskatu zeukuten. Guk horrela eginen zen hitza eman genien. Horretaz gain, zerrrenda hori egitean, gurasoei garbiro azalduko zi-tzaien, gauza harrigarriak medio zela, bilduko zen dirua zertan enplegatu asmo zen.

Lan honen zabalkundea eta garrantzia iussirik eta denok denetan ibil ez gintezen, honetako pertsona bat propio jartzea beharrezko jotzen zen. Honela eskatu zuten banatzaileek eta honela egitea erabaki zen.

Halere arazo honen zuzendaritza osoa, eta zer gertatzen zen konpontzeko, mahain bat osatu eta honetaz kargutu zen. Mahakinde irakasle-elkartaren ordezkari batzu ziren batetik eta banatzaileek bestetik.

Irakasle-elkartearen ordezkariek, probintzia guztietakoak izan zitezen egoki ikusten zen eta honela izendatu ziren.

Irakasle-elkartearen ordezkari hauk, zer eta nola argitara proposatuko zuten eta "Gauza harrigarrien" banatzaileek, non argitara eta komertzialki nola aurrera eraman ikusiko zuten.

Bestalde, garbi jarri zen bai eta, argitarako ziren testo liburu eta irakurgaiak ez zirela komertziorako eginak izanen. Ikastola guztiei gosta prezioan edo ahalik merkeen, mahainaren eritzietara beti ere bilduz, salduko zitzaizkien.

"Gauza harrigarriak" saldu bala bilduz johanen zen dirua, Iñaki heobide eta Arantza harrietaren izenean (Irakasle-elkartearen arduradunok, liburuez ardura zedin, andereño hau hautatu bait gennuen) ipiniko zen. Batak bestearen baimenik gabe diru hau baliatzeko eskubiderik ez zukeen izanen.

Honela gauzak, guri zegokigun arazoa, zer eta nola argitara proposatzea zenez gero, gure usteak era honetara konkretatu genituen: Sail hauetara egin behar ziren lanak bildu genituen.

3.- Freinet-en liburuen saila.

Freinet-en lankesta, liburuxka labur batzuen bidez. 7-8-9 urtetako.

3.- Freinet-en liburuen saila.

4.- Ikastoliaren zenbait arazo ukitzeko saikeren saila.

5.- Hiztegien saila.

Aisa ikus dezakezuenez, liburu hauk inprentatzeak lanak ematen ditu. Testoen egileekin nahiz itzultzailcekin harreman hertsi bat norbaitek ukantzan beharrezko da, nolabaiteko programa egiteko behinik behin. Testo batzu hornitzeko marraskiak bildu behar dira eta batetik bestera atergabe ibili behar da. Lan horretarako, arduradunok J.M. proposatu genuen eta banatzailleek onartu egin zuten. Pertsona honen ordainketa, lehen aipaturiko fondo horretatik egitea erabaki zen. Honela hasi zen mugitzen liburutegiaren gurpil hau eta nahi bezain azkar ibili ez badabil ere, bere aurrera bidea egiten ari da.

Esan dezagun, liburuen zabalketaren arazoa ez zela behar bezala estudiatu eta honek gero ikusiko ditugun ondoren txarrak ekarri ditu. Egia esan ez zen, liburu hauk argitartzean, zabalketa batere zail izanen zenik, gerora agertu da aski zail dela, eta pertsona bat honetaz arduratu ezik, liburuak apaletan geratzen direla.



Lehenik mahaina bildu zen garaian, haseran harturiko konpromisorik, hots, zerrenda egin eta gu-rasoei arazo honen berri ematea, zenbait ikastolatzen ez zela betetzen aurpegiratu zeukuten banatzailleek. Guk ez dugu uste hau ezjakinaren kausaz gertatu denik, honen berri hitzez eta idatziz behin baino gehiagotan eman baita. Hortaz honetan arrazoina banatzailleek dute eta zerrendarik eman ez dutanek, gutienez honen zergatia azaldu beharko lukete.

Bestalde, eta hau ez da irakasle-elkartaren arduradunen kulpaz gertatu, inprimategiko lanak oso abiada motlean eragin dira. Behin edo gertatu da lanaren bat aspaldian inprimategiaren zela uste izatea, honela esan zitzaielako noski, eta luzaroan eramateke, etxeen, lan hori banatzailleak edukitzee. Inprintak behin eta berriz halako garaitarako liburua argitaratzeko hitza eman badu ere, sarritan hits hau ez du bete,. Honen kausaz, beti atzerapen negargarri batekin eta honen arrazoinik eman gabe, atera dira orain liburuak.

Uste dugu ez daitekeala, modu honetara lan seniorik egin. Norbaitek inprintako lanak garaiz egin daitezten esigitzen ez badu berriz ere aginduak hitz hutsak izanen dira. Erabaki behar da inprintari aginduriko epean lanak amai ditzan eskatzea.

Orain arte argitara eman diren liburuei gagozkielarik honko hau adieraztea komeni da: Liburu hauk ez dira, espero bezala zabaldú. Hau guztion kulpaz gertatzen dela uste dugu, zeren apur bat ahalegiduko bagina liburu hauk aisa salduko genitzke. Edozein eratara ere liburuak argitara eta saltzeko geratzen zaizkigula, fondoak ahituz doña. Memento honetan hondoraino agortua dago fondoak eta argitara emaniko liburuak saldu eta kobratu artean ezin izanen da liburu berririk argitara eman.

Honetaz gain, zabaldú diren liburuak be-

rak ere ez dira esaniko epean ordaintzen eta honek denaren atzerapena dakar. Karta asko egin izan behar du, koordinatzaileak kontuek egunera zitzaten eskatuz.

Bi arazo hauek dira bada bereziki gogotan hartu behar ditugunak: Liburuak shalik azkarren zabaldu behar ditugula batetik eta berandu gabe kobra-tu behar ditugula bestetik, baldin fondoak nolabaiteko ritmoz dantza dadin nahi badugu. Oraingoaz hau ez da posible ikusten pertsona bat bete betean hontara dedikatzen ez bada.

Pertsona bakar batek nekez egin ditzake bi eratako lana, hots, testo berriak eta irakur-gaiak eragitea lan bat baita eta inprimategitik ateratzen diren liburuak zabaldu eta kobratzea beste bat. Beraz bi pertsona beharko lirake lana behar bezala eratzeko. Pertsona bakar batek, nahiz oso trebea. izan, nekez mugi ditzake bi lan mota hauk batera.

Bestalde egun ditugun posibilitateak gogan harturik, aurrera bidea urratzen ahalegindu behar dugu. Posibilitate hauen arabera pertsona bakar bat ari daiteke lan honetan.

Lehen hautatu zen kordinatzaileak bere ezi-na azaldu zuen eta beste baten bila hasi ginuen. Fermín Jaka-ri, "Gauza harrigarriak" liburu-sortaren banatzaileari egin zitzaison lan honetarako proposamen eta orain bere baietza eman berri du.


Bere lan honi berehala ekinen dio eta herriz herri, liburuak zabalduz eta eritzia bilduz johanen da. Uste dugu denon laguntzarekin liburutegiaren arazoari bultzada handi bat eman ahal izaneh diola. Batetik, orain arte enplegatu den dirua, FONDORA beritzultzen ahaleginduko da. Bestetik datoren ikasaroari begira testo liburuak planteaketa, mahainkideekin batera egiten eta eragiten ahalegin-

duko da.

Egia esan, mahaina osatu zenetik ez da behar hainbateko maiztasunez bildu eta ez du ongi funtzionatu. Ikusten da mahainkideak beste modu batera eratu beharko lituzketela beren lanak. Bakar batzuei etor ezina ere bitartean sortu zaie eta ondorenez berriz eratu beharko ikusten da.

Hau egiten ez beda zamarik handiena koordinatzailearen bizkar bakarrik botako litzateke eta denon kaltetan izanen.

GORDAITLU.-



IKASTOLA LIBURUTEGIKO DIRU KONTUAK

7

OGIA / ERLEAK/OLENTZARO / ONDDOAK 217.258,- Pta
 PRINTZE TXIKIA 201.616,91 "

IRAKASLEEN LIBURUTEGIA:

1º	30.309,- "
2º	32.056,- "
3º	57.635,- "
4º	52.598,30"

FITXAK:

1º EUSKARA	85.630,- "
2º "	184.298,- "
MATEMATIKAK	48.921,- "
IKASTOLA HIZTEGIA	56.000,- "
VARIAS	6.910,- "
GIZARTE ESKOLA	15.000,- "
FREINET TRADUZIOAK	28.500,- "
FREINET KOLEZIO OSOA	22.500,- "
LANERAKO ZENBAIT LIBURU	12.000,- "
ORDAINKETA ZENBAIT	25.068,- "
J.M.ren ORDAIN-SARIA	77.321,- "

1.153.621,21Pta

SARTU DEN DIRUA

GUZIRA 1.013709,21 pezeta

LIBURUTEGIAREN EGOERA

Ikastola-Liburutegia organizatu zenean, sail haue-tan banatu zen:

- Testo liburuen saila
 - Haurrentzako konsulta liburuak
 - Irakasle liburuak
 - Freineten pedagogia
 - Hiztegi saila

TESTO LIBURUEN SAILA

- HIZKUNTZA -

EUSKARA 3an maila

EUSKARA 4gn maila

EUSKARA 5gn maila (inprimategirako)

2. - MATEMATIKA . -

MATEMATIKA 2 maila

MATEMATIKA 3 maila

HAURRENTZAKO KONSULTA LIBURUAK:

- | | |
|-------------------|----------------------------|
| -OGIA | -LABORARIA (inprimategira- |
| •ERLEAK ETA EZTIA | -ARTZANTZA " |
| -OLENTZARO | -DURANGOALDEA " |
| -ONDDOAK | -GOIHERRI " |

Zientzi saila:

- HAIZEAK, EURIA ETA KLIMA
- URAREN INDARRA (inprimategian)

IRAKASLE LIBURUAK:

- | | |
|--|------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"> -PEDAGOGIA ETA GIZARTEA -GIZARTEAREN ESKOLA | E. Osa
L. Haranburu |
|--|------------------------|

FREINETEREN PEDAGIA:

- ESKOLETAKO ALDIZKARIAK
- BEREZKO IRAKURPIDEA
- LILITEGIAN
- GAZTEENTZAKO ZENBAIT AHOLKU
- ZIENTZIEN ERAKASKUNTZA

HIZTEGI SAILA:

- IKASTOLA HIZTEGIA

.....
 ZENBAIT OHAR: Haurraren konsultarako "zientzia saillean" argitaratzen diren liburuxkak 4gn. mailarako eginak dira eta datorren kurtsoetarako bere fitxak ere izanen dituzte.

E. Osak idatziriko PEDAGOGIA ETA GIZARTEA nahiz eta LURen argitaratua izan, gure sailenn sartu dugu, sail honetarako prestatua izan bait zen. Matematikak inprimategian daude oraindik.

NONI ZER

- Apurrik	I
- Aldizkariaren molde berriak	1
- Unesco-ren teknikakeria eta Freire-n kontzientziatza	6
- Zazpi eta zortzi urtetako haurra ..	16
- Euskal-ipuinak	28
- Testo librea dela-eta	38
- Goiherriko irakasleei	41
- Ikastola liburutegiaz	46

